



Arartekoaren 3/2011 gomendio orokorra, urriaren 5ekoa.
Jatorriz Europar Batasunekoak diren eta Euskal Autonomia Erkidegoan bizi diren ijitoen egonleketan esku hartzeko jardute-protokoloak garatzeko beharra.

I. Sarrera eta aurrekariak

I.1. Arartekoak hainbat kexa jaso ditu jatorriz Europar Batasunekoak diren ijitoen egonlekuek Euskal Autonomia Erkidegoan duten errealitatearen inguruan. Kexa horiek euren familiekin bizi ziren pertsona horien bizi-baldintza desagokien inguruan kezkatuta zeuden gizarte agenteek aurkeztu dituzte bereziki. Familia horiek ez zuten gizarte arretarik jasotzen.

Horrez gain, egonlekuak salatzen zituzten auzokideen kexak ere jaso ditu, segurtasun faltako sentazioagatik eta baldintza higieniko-sanitarioengatik.

Era berean, Euskal Herrian Ijito Herriaren Erabateko Sustapenerako eta Gizarte Partaidetzarako Kontseiluan ordezkaturako erakundeek egonleku horietan bizi ziren pertsonen egoerarekiko kezka eta pertsona horien beharrei behar bezalako erantzuna eskaintzen dioten politika publikoak abian jartzeko premia adierazi digute.

I.2. Gure autonomia erkidegoan 2004. urteaz geroztik ezagutu dira jatorriz Europar Batasunekoak diren ijitoen egonlekuak eta ondorioz, Arartekoak 2005ean hainbat gomendio burutu zituen¹. Hala eta guztiz ere, 2007. urteaz geroztik ezagutu dira egonleku gehienak.

Honako herrietan ezagutzen dira halako egonlekuak: Portugalete, Ortuella, Gernika-Lumo, Zaldibar, Astigarraga, Donostia, Hernani, Andoain, Tolosa, Urnieta, Erreterria, Irun, Hondarribia, Azkoitia, Eibar, Azpeitia, Zarautz. Egonleku horiek iraupen (Hernanikoak bi urte iraun zituen) eta tamaina (20 pertsonatik 100 pertsona baino gehiagora) ezberdinekoak izan dira, ezagutu ahal izan dugunaren arabera. Eragindakoen pertsona kopurua ez da ezagutzen egonleku horien egoera, behar eta osaerei buruzko datu, erregistro eta txosten faltagatik. Gainera, egonleku batean bizi izan diren pertsona asko, lekua utziarazi dietenean, beste herri batera joan dira, beraz, oso zaila da gizarte egoera honen irismena ezagutzea.

¹ [Arartekoaren 19 eta 20/2005 gomendioak, azaroaren 21ekoak](#)



Bere bizitza ezaugarrien eta baldintzen inguruan egiten ditugun aipamenei Arartekok bideratutako jarduerak² eta gizarte agenteekin bateratutako ezagutza dute oinarritzat.

Egonleku horiek jatorriz Europar Batasunekoak diren pertsonak osatzen dituzte eta gehienak ijitoak dira. Euren ezaugarri komun gisa aipa dezakegu infraetxe egoeran bizi direla, bereziki jabeek utzitako eraikinetan. Eraikin horiek, askotan, industria erabilera izan zuten, eta ez dute urik ezta argi elektrikorik ere. Orokorrean, ezin dugu esan eraikin horiek Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalaren 25. artikulua eta Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Nazioarteko Itunaren 11. artikulua³, besteak beste, onartutako bizitza egokirako eskubidearen estandarrak betetzen dituenik.

Aurkezten dituzten gabezien artean euren oinarritzko beharren asetze maila urria eta arreta sanitarioan duten jarraitasun falta aipa ditzakegu. Euren egoeran baldintza higieniko-sanitario falta nabarmentzen da, baita enpleagarritasun maila oso baxua ere⁴ eta etxebizitza edo lana eskuratzekoan bazterkeria pairatzen dute. Pertsona horietako gehienak ez dira eroldan inskribatu, gure erkidegoan epe luzeetan zehar egon diren arren, eta ez dute gizarte babesik jasotzen nahiz eta behar egoeran bizi. Erakunde humanitarioen laguntzei eta eskaletasunari esker bizi dira, orokorrean. Gizarte egoera hau oso konplexua da, gizartearen gehiengoarekin ia harremanik ez duten pertsonak dira; euren bizimoduak, euren marjinazio, pobrezia eta baztertzeko egoerak eta gizarteak haiekiko duen gaitzespenak esku-hartzea zailtzen dute. Horri guztiari euren migratze proiektuaren eta egoeren inguruko ezjakintasuna gaineratu behar zaio, baita erakundeekiko -gizarte eskubideak babesten dituztenak barne- islatzen duten mesfidantza ere.

- I.3.** Gure erkidegoko gizarte zerbitzuek noizean behin esku hartu dute, lehentasunezkoztat jo baitute gizarte arreta eta erkidegoko funtzioa, baina auzokideen salaketek ordena publikoko neurriei lehentasuna ematera bultzatu dituzte. Hori dela-eta, gizarte edo kultura alorrean burututako esku-hartze jarduerak zein osasun arretari dagozkienek, bai beharrezkoa duten mediku arretan bai infekzioak saihesteko bideratutakoetan (hala nola, Osakidetzak artatu zuen tuberkulosi agerraldia), ez dute behar bezalako jarraipenik izan.

Orokorrean, auzokideen salaketen ondorioz edota higiezinaren jabeak egoitza judizialean egindako salaketaren ondorioz euren kaleratzea agintzen zuen

² Arartekoak Eusko Legebiltzarrari urtero egindako txostenak, kultura gutxiengoaren eta etorkinen eremuekin zerikusia duten atalak (www.ararteko.net).

³ [Nazio Batuetako Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Batzordea](#) (CDESC), *4. Ohar Orokorra: Etxebizitza egoki baterako eskubidea*, 1991.

⁴ Herritar horien langabezia tasa % 50etik gora dago eta pobrezia tasek % 70 gainditzen dute ijitoei buruzko Europako II. goi-bileran adierazi zenaren arabera.



ebazpen judizialarekin edota poliziaren esku-hartzearekin desagertu dira egonlekuak. Kaleratutako pertsonak beste herri batzuetara joan dira.

Pertsona horiek aurkezten dituzten beharrak hainbat euskal herri administrazioari, udali, foru aldundiei eta Eusko Jaurlaritzari eragiten diete.

Azken urteetan ijitoen duintasunean eragina duten oso pausu garrantzitsuak eman dira. Pairatu duten jazarpen historikoa onartu da eta gizartean eta ekonomian barneratzeko, euren parte-hartzea sustatzeko, euren eskubideak errespetatzeko eta pairatzen duten diskriminazioaren aurka borrokatzeko konpromisoak hartu dira. Baina oraindik bidea dago ibiltzeke, batez ere esparru legalaren aplikazio praktikoan. Hurrengo oharbideek giza eskubideen ikuspegitik esku hartzeko beharrari egiten diote erreferentzia, Arartekoari dagokion ikuspuntuari hain zuzen.

II. Gogoetak

II.1. Europar Batasunak Hungaria, Bulgaria⁵ edo Errumania⁶ bezalako herrialdeak bere gain hartzean, herri horietako pertsonak zirkulazio askeko, egoitza askeko eta diskriminazio ezarako eskubideak eskuratu dituzte⁷. Europar Batasunean hamar mila eta hamabi mila ijito bitartean bizi dira⁸, gutxiengorik handiena da eta Europar Batasuneko ia Estatu guztietan aurkitzen da.

⁵ Bulgaria eta Errumania oraindik ez dira Schengen eremuko eskubide osoko kide. Herrialde horien eta Schengen eremuaren arteko muga kontrolak mantentzen dira. 2011ko irailean egindako EBko barne ministroen kontseiluak ez du guztien adostasunik izan, Holanda eta Finlandiaren arabera ez dituzte baldintzak betetzen muga horiek kentzeko.

⁶ Estatu horren atxikimendu baldintzei zegokion aktan salbagueardiako klausula bat aplikatzeko aukera zehaztu zen behin-behineko epea igaro arte. Epe horrek guztira zazpi urte iraun zitzakeen besteren kontura lan egiten zuten bertako langileen zirkulazio askeko erregimenari dagokionez. Espainian epe hori 2009ko urtarrilaren 1ean amaitu zen. Hala eta guztiz ere, Ministroen Kontseiluak 2011ko uztailaren 22ko bilkuran behin-behineko epea berriro ezartzea erabaki zuen. Besteren kontura lan egiten duten Errumaniako langileen lan merkatura sartzeko muga egun hartatik 2012ko abenduaren 31ra arte dago indarrean. Data horretan gobernuak berriro ere lan merkaturaren egoera ebaluatuko du. Ondorioz, Espainian 2011ko uztailaren 22tik aurrera sartuko diren Errumaniako herritarrei besteren kontura lan egiten duten langileen lan merkaturako sarbidean eragiten duten atxikitze itunean ezarritako xedapen iragankorrak ezarriko zaizkie. DGI/SGRJ/5/2011 jarraibideak, uztailaren 22koak, besteren kontura lan egiten duten Errumaniako langileak eta euren senideak Espainian duten sarrera, egonaldia eta lana arautzen dutenak.

⁷ Europar Batasuneko Oinarrizko Eskubideen Gutuneko 1,8,19,20,21,24,25,35 eta 45. artikulua. Europar Batasuneko Itunaren 2., 3. eta 5. artikulua.

⁸ Europar Batasunean romaní terminoa erabiltzen da, ezaugarri kultural antzekoak dituzten talde eta pertsonal biltzen dituena, hala nola, sintiak, ijitoak, ibiltariak, motzailleak. Gehienak (% 80) sedentarioak dira, Roma in Europe: The Implementation of European Union Instruments and Policies for Roma Inclusion – Progress Report 2008-2010, (SEC(2010)400).



Europako lurraldeetan mendeak daramatzaten arren, aurreiritziak, intolerantzia, diskriminazioa eta bazterkeria pairatzen dituzte oraindik ere.

Pertsona horiek Europar Batasuneko Estatu batekoak dira, beraz, Europar Batasuneko oinarrizko eskubideen gutunean zehazki onartutako eskubideak erabili ahal dituzte. Espainian, 240/2007 Errege Dekretua, otsailaren 16koa, Europako Espazio Ekonomikoari buruzko Ituna sinatu duten beste estatu batzuetako herritarrek Espainian sartzeari, askatasunez joan-etorrian ibiltzeari eta bizitzeari buruzkoa aplikagarria da (240/2007 ED).

Araudi horren arabera, Europar Batasuneko Estatu kideetako herritarrek Espainian sar daitezke indarrean dagoen pasaportea edo nortasun agiriarekin, bertan euren nazionalitatea agertzen den heinean.

Pertsona horiek, Espainian sartu eta hiru hilabetetara, Atzerritarren Erregistro Zentralean izena eman beharko dute, 240/2007 EDko 7. artikulua.

Araudi horrek Europako Legebiltzarreko eta Kontseiluko 2004ko apirilaren 29ko 2004/38/CE Zuzentaraua aplikatzen du, Batasuneko herritarrek eta senideek Estatu kideetako lurraldeetan zehar askatasunez zirkulatzeko eta bizitzeko eskubideari buruzkoa.

Bi testuetan pertsonen zirkulazio askea xedatzen da Batasuneko oinarrizko printzipioa izateagatik, Europako herritarren osagaia eta barne merkatuko funtsezko elementua. Estatuak ordena, segurtasun edo osasun publikoko arrazoiengatik bakarrik mugatu dezakete. Mugak proportzionaltasun printzipiora egokitu beharko dira eta pertsonaren jokabide pertsonalean soilik oinarritu. Jatorriz Europar Batasunekoak den kanporatzea erabakitzen bada, egoera pertsonala ebaluatu beharko da eta berme prozesal nahikoekin hartu beharko da erabaki hori. Ezin da taldekako kanporaketarik egin⁹ eta Estatu kide batek ezin du errekurtsio ekonomiko faltagatik jatorriz Europar Batasunekoak den herritar bat zuzenean kanporatu.

II.2. Europar Batasunak, 2011. urtean ijitoengan eragina izan duten hainbat jarrera hartu ditu, alde batetik, Europako Legebiltzarrak: 2011ko martxoaren 9ko ebazpena, ijitoak gizarteratzeko, bestalde, Europako Batzordeak: Batzordeak Europako Legebiltzarrari, Kontseiluari, Lantalde Ekonomiko eta Sozialari eta Eskualdeetako Lantaldeari 2020ra arte ijitoak gizarteratzeko estrategia nazionalen esparruari buruz 2011ko apirilaren 5ean egindako jakinarazpena¹⁰.

⁹ Giza Eskubideak eta Oinarrizko Askatasunak babesteko Europar Hitzarmena, Europako Batasunaren Funtsezko Eskubideen Gutuna, 2004/38/CE Dekretua, Batasuneko herritarrek eta euren senideek Estatu kideetako lurraldeetan zehar askatasunez zirkulatzeko eta bizitzeko eskubideei buruzkoa.

¹⁰ Batzordeak Europako Legebiltzarrari, Kontseiluari, Lantalde Ekonomiko eta Sozialari eta Eskualdeetako Lantaldeari 2020ra arte ijitoak gizarteratzeko estrategia nazionalen esparruari buruz [2011ko apirilaren 5ean egindako jakinarazpena](#) COM(2011) 173 amaiera.



Jakinarazpen horrek ijitoak gizarteratzeko estrategia biltzen du Estatu kideek ijitoengan eragina duten politikak gara ditzaten estatu, eskualde eta toki mailan. Beste helburuetako bat ijitoen gizarteratzea bermatzeko eskura dauden funtsen erabilera eraginkorra egiten dela bermatzea da. Horregatik, estatuek ijitoen gizarteratzea lortzeko egiten diren ahaleginak babestea xedatu du¹¹ (Europako Gizarte Funtsa, Eskualdeko Garapen Funtsa eta Tokiko Garapenerako Europako Nekazaritza Funtsa¹², Progress programa¹³). Horri esker, etxebizitza moduko azpiegituretan eragina duten neurriak har daitezke, baita beste eremuetan eragina dutenak ere, hala nola, osasunean, hezkuntzan eta enpleguan.

Horren guztiaren ondorioz, Estatu kideek ijitoak hezkuntzan, osasunean, enpleguan eta etxebizitzan gaineratzeko jarduerak abian jarri behar dituzte. Estatuek 2011. urte amaieratik aurrera abian jarriko dituzten neurriak aurkeztu behar dituzte.

Bestalde, ezin da inolako diskriminaziorik egon hezkuntzara, enplegura, lanbide heziketara, osasunera, gizarte babesera eta etxebizitzara sartzeko diskriminazioaren aurkako araudiaren babesean¹⁴, hau da, Europar Batasunaren helburuetako bat ijitoak ez diskriminatzea da.

Horrez gain, aipatu beharra dago, orokorrean¹⁵, Europar Batasunak, bere politika eta jardunak definitu eta burutzean, enplegu maila altu baten sustapenarekin, gizarte babes egoki baten bermearekin, gizarte bazterkeriaren aurkako borrokarekin eta hezkuntza, heziketa eta giza osasunaren babes maila altuarekin loturiko eskakizunak kontuan hartu behar dituela.

Europar Batasuneko kide izateagatik bere gain hartutako betebeharrez gain, bestelako konpromisoak ere hartu dira NBE edo Europako Kontseiluko kide izateagatik¹⁶ eta hainbat itun eta hitzarmen sinatzeagatik.¹⁷

¹¹ Ijitoak gizarteratzeko estrategia nazionalen Europako esparruari buruzko Batzordearen jakinarazpen horretan adierazitakoaren arabera, Estatu kide gehienek ez dituzte Europar Batasuneko funtsak behar bezala erabiltzen ijitoen beharrak konpontzeko.

¹² COM (2010) 133, [Herri romaníarra gizarte eta ekonomia mailan bertakotzea jakinarazpena](#).

¹³ [283/2010/UE Erabakia](#), Europako Legebiltzarra eta Kontseiluarena, 2010eko martxoaren 25ean emana.

¹⁴ Kontseiluaren 2000/43/CE Zuzentaraua, 2000ko ekainaren 29koa, pertsonen tratu berdintasunaren printzipioa aplikatzeari buruzkoa, arraza edo etnia jatorria edozein izanik ere, Kontseiluaren 2000/78/CE Zuzentaraua enplegu eta okupazioan tratu berdina izan dadin esparru orokorra finkatzeari buruzkoa, Espainian Neurri Fiskal, Administratibo eta Gizarte Gaietakoei buruzko abenduaren 30eko 62/2003 Legeak bideratu zituenak.

¹⁵ Europar Batasunaren funtzionamenduari buruzko Itunaren 9. eta 10. artikulua.

¹⁶ Diskriminazioaren aurkako borroka Nazio Batuen helburuetako bat ere bada, zehazki, Arraza Bereizkeria Ezabatzeko Batzordearen helburua, 1965eko Arraza Bereizkeria Ezabatzeko Konbentzioa betetzen dela ziurtatzeko ardura baitu eta Europako Kontseiluko Arrazakeriaren eta Intolerantziaren aurkako Europako Batzordearen (ECRI) helburua. Halaber, 2009ko apirilko Durban berraztertze Konferentzia (arrazakeriaren aurkakoa)



Bultzatu beharreko neurri horiek eta burutzen ari diren eta aurreikusten diren beste batzuek herri administrazioen arteko koordinazioa eskatzen dute autonomia, estatu zein Europa mailan.

Ondorioz, ijitoen gizarteratzea Europako agendaren barnean dago, beraz, Europar Batasunak hainbat errekurtso ekonomiko eta aholku bideratu ditu hura babesteko. Ijitoen populazioaren egoera eta beharrei buruzko hainbat txosten eta ikerketen eta ijitoen gizarteratzea lortzeko helburu zuten Europar Batasuneko tresnak eraginkor bihurtzeko erabaki politikoen emaitza izan da hori¹⁸.

Aldez aurretik, Ijitoak gizarteratzeko 2005-2015 Hamarkadan Estatu kideek egindako jarduerak, Ijitoak gizarteratzeko Europako Plataformaren hasiera 2009ko apirilean¹⁹ eta lurralde mailako jarduera planak aipatu behar ditugu²⁰.

Ondorioz, Europar Batasunak ijitoen sustapenerako esparrua eskaintzen du eta, gizarteratzerako, diskriminazioaren aurkako borrokarako eta jatorriz Europar Batasunekoak diren pertsonen eskubideen eraginkortasunerako eskaintzen dituen neurriekin batera, eskumena duten administrazioen esku-hartzea beharrezkoa da.

aipatzekoa da; bertan, Nazio Batuetako 182 Estatu kidek ijitoen eta beste gutxiengoan aurkako diskriminazioa erazteko neurriak hartzeko hitz eman zituen, eta diskriminazioaren aurkako konponbideak eta babes berezia eskainiko zizkietela adierazi zuten.

¹⁷ Hala nola, Europako Kontseiluko Hitzarmen Esparrua gutxiengo nazionalen babeserako edo Nazio Batzuen Batzordeko 27. Gomendio Orokorra, romaníarren diskriminazioari buruzkoa, Arraza Bereizkeria Ezabatzeke.

¹⁸ Oinarrizko Eskubideen Europako Agentziaren (FRA) txostenak, "Herri romaníarra gizarte eta ekonomia mailan bertakotzea, com (2010) 133" jakinarazpena, (Espainia, Belgika, Hungaria) hirukotearen baterako Adierazpena 2010eko apirilaren 8an eta 9an Kordoban egindako ijitoen bigarren goi-bilera zela-eta, edo aipatutako "2020ra arte ijitoak gizarteratzeko estrategia nazionalen esparrua" jakinarazpena.

¹⁹ Plataformaren jarduera garrantzitsuenetako bat ijitoen gizarteratzeko 10 printzipio komunak hartu izana da. 2009ko ekaineko Europar Batasuneko Kontseiluak bere ondorioetara erantsi zituen eta Estatu kideak eta Batzordea gonbidatu zituen politikak diseinatu eta garatzean kontuan har zitezten. Printzipio horiek honako hauek dira: 1. Politika konstruktibo, pragmatiko eta diskriminaziorik gabekoak. 2. Ijitoengan arreta esplizituki baina ez eksklusiboki ezartzea. 3. Kultura arteko planteamendua. 4. Ijitoak guztiz gizarteratzea. 5. Genero ikuspegirako kontzientzia. 6. Frogetan oinarritutako politikak igortzea. 7. Erkidegoen tresnak erabiltzea. 8. Eskualdeko eta tokiko administrazioen parte-hartzea. 9. Gizarte zibilaren parte-hartzea. 10. Ijitoen parte-hartze aktiboa.

²⁰ Estatu mailan zein Autonomia Erkidegoen mailan, Euskal Autonomia Erkidegoa kasu, herritar horiengan eragina duten jarduera planak onartu dira. Gauzak horrela, Estatuan ijitoen garapenerako 2010-2012 ekintza plana abian dago. Euskal Autonomia Erkidegoan ijitoen erabateko sustapena eta parte-hartzea bultzatzeko bi plan onartu dira (2004-2007 eta 2008-2011) hainbat eremutan eragina duten neurriekin, garapen bera jarraituz.



II.3. Estrategia, plan eta neurri horiek ijitoen gizarteratzea dute helburu komun gisa. Baina administrazioek egonlekuen inguruan bideratu dituzten jardueren helburua, gehienetan, horiek desegitea izan da, bai hartutako jabetza pribatu baten eraikin bat utzaraztea agintzen zuen ebazpen judizial bati jarraiki, bai eremu publikoen erabileren inguruko udalen ordenantzei jarraiki.

Hainbat udalek onartu dituzten ordenantzetan²¹, zenbait jarduera xedatu dira, hala nola, eremu publikoaren erabilera desegokia arautzera edo eskaletasuna debekatzera bideratutakoak. Xedapen horiek aplikatzean, pertsona horien egoera eta beharrak eta herri administrazioek gizarte babesaren alorrean dituzten eskumenak kontuan hartu gabe, pertsonak zaurkortasun handiko egoeran gera daitezke. Gauzak horrela, Donostiako udalerrriak 2010. urtean²², Etengabeko Prebentzio Plana garatzean udal araudian jasotako arau-hausteengatik sortutako 9.317 aktetatik 5.457 jarduera bideratu ziren eskaletasunari eta bide publikoetan egindako kanpaketei aurre egiteko, 2009. urtean egindako esku-hartzeekin alderatuta (4.072 jarduera) igoera nabarmena eraginez. Beraz, adierazitakoaren arabera, jardueren % 58 kaleetan eskatzen dutenekin eta hirietako txokoetan “zaborretik bildutako materialekin antolatutako kanpamendu osasungaitzetan” lo egiten dutenekin zerikusia izan zuten.

Esku-hartze mota horiek ez dira egin diren bakarrak, zenbaitetan pertsona horien beharrei aurre egiteko urratsak eman dira, baina jarduera horiek ekimen isolatuak izan dira. Behin utzaraztea gauzatuta gizarte zerbitzuek edo nazioarteko bitartekaritzarako beste zerbitzuek, hala nola, Biltzen, Gizarteratzeko eta Nazioarteko Bizikidetzarako Euskal Zerbitzuak, konfiantzazko harremana ezartzeko, beharrak ezagutzeko, pertsonak ezagutzeko egindako ahaleginek ez dute jarraipenik izan, ekimen pribatuko hainbat agentek bideratutako zenbait kasu izan ezik. Orokorrean, esku-hartze horiek oso noizbehinkakoak izan dira eta ez da jarraipenik edo iraunkortasunik egon, emaitzei buruz hitz egiteko oso garrantzitsua zena, izan ere, utzaraztearen ondoren, pertsonak egonlekua aldatu dute, bizitzeko permisibitate handiagoa duten beste lekuren bat bilatuz (behintzat aldi baterako).

II.4. Pertsonen eskubideekin eta Europar Batasunak eta Estatuak hartutako konpromisoekin bat datorren jarduera erantzulea bideratzeko herri administrazio ezberdinen arteko jarraibideak ezarri beharko lirateke herri batean ijitoen egonleku bat dagoenean. Jarduera horiek ez lukete utzaraztea bilatu beharko, gizarteratzea baizik. Kanpamendu horietako hasierako arreta gizarteratze prozesuaren lehen fasea da. Pertsonen beharrentzat eta

²¹ Adibidez Bilboko eremu publikoko ordenantza eta hiritartasunari, bide publikoaren erabilera eta garbitasunari eta hiri paisaiaren babesari buruzko Donostiako udal ordenantza.

²² Donostiako Udaleko Hiri Segurtasuneko zinegotziak 2011ko martxoaren 17an komunikabideei emandako datuen arabera.



auzokideen harremanentzat egokia den gizarte eta komunitate mailako esku-hartzea Europar Batasuneko esparruan babesa duen prebentzio-neurria da eta, ikusi dugun moduan, nahitaezkoa da Europar Batasuneko herritar gisa eskubideen titular izanagatik. Esku-hartze faltak arazoa beste leku batera, beste herri batera, bideratzen du ez ditu betetzen Giza Eskubideen eta gutxiengoaren babesaren alorrean hartutako konpromisoak eta galdutako aukera da²³.

Zentzu horretan, Euskal Poliziaren Legearen 4. artikulua gogora ekarri behar dugu: *“Herritarren segurtasunerako Euskal Autonomi Elkarteko politika, gizarte-ongundea lortzera bideratuko da. Horretarako, gizarte-bazterketari aurre egiteko Euskal Herriko administrazio ezberdinek burutu ditzaten besteekin koordinatuko da eta agente sozial desberdinen eskakizunak hartuko ditu kontutan.”*

Halaber, etxebizitzaren bortxaezintasunari buruzko jurisprudentzia kontuan hartzea garrantzitsua da, eragina izan dezakeen eskubidea baita. Eskubide hori aplikatzean, titularraren baimenik gabe bizilekuan sartzea debekatzen da delitu gorietan izan ezik, edo ebazpen judiziala dagoenean. Eskubide horren edukia gogora ekartzen duen jurisprudentzia asko dago, besteak beste²⁴, 1996ko azaroaren 6ko Epaia RJ\1995\8015, bigarren zuzenbideko oinarria:

“En efecto, el art. 18.2 de la Constitución consagra el derecho a la inviolabilidad del domicilio prohibiendo la entrada en el mismo (salvo caso de flagrante delito) sin consentimiento de su titular o resolución judicial y el Tribunal Constitucional al referirse a dicho derecho, ha indicado que la protección constitucional del domicilio lo es de carácter instrumental y que defiende los ámbitos en que se desarrolla la vida privada de una persona con la imbricación que así existe entre dicha norma que, como se ha dicho, prohíbe la entrada y registro en el domicilio y la que conlleva la defensa y

²³ Munduko Bankuaren Txostena “Ijitoen gizarteratzea: Europarentzako aukera ekonomikoa”.

²⁴ Kontu honen inguruko oso epai nabarmena 2002ko azaroaren 4ko Auzitegi Gorenaren Epaia da: *“La interpretación del domicilio no puede ceñirse estrictamente al del lugar que sirve de morada habitual del individuo. Ha de entenderse de modo amplio y flexible ya que trata de defender los ámbitos en los que se desarrolla la vida privada de las personas, debiendo interpretarse a la luz de los principios que tienden a extender al máximo la protección a la dignidad y a la intimidad de las persona. Se trata de garantizar el ámbito de privacidad, lo que obliga a mantener un concepto constitucional de domicilio, de mayor amplitud que el concepto privado o jurídico-administrativo, ya que con el domicilio no sólo es objeto de protección el espacio físico en sí mismo considerado, sino lo que en él hay de emanación de la persona y de esfera privada de ella. Incluso las dudas deben ser interpretadas en beneficio de los acusados, para dar mayor protección constitucional al concepto de domicilio. Así en el caso, el jardín circundante al chalet del acusado debe ser considerado como una parte de su domicilio, aunque la puerta de acceso al mismo permanezca abierta (Konstituzio Auzitegiaren otsailaren 17ko 22/1984 epaia eta Auzitegi Gorenaren 1995eko urtarrilaren 19ko eta otsailaren 15eko, 1996ko apirilaren 30eko eta 2001eko martxoaren 19ko epaiak).”*

garantía en el ámbito de privacidad e intimidad en el número 1º de referido artículo 18 de la Carta Magna (Cfr Sentencia del Tribunal Constitucional 22/1984, de 17 de febrero, lo que implica las garantías procesales establecidas para la práctica de las diligencias de entrada y registros en un domicilio, (Cfr. Artículos 545 y siguientes de la Ley rituaría penal).

*Consecuencia de dicha doctrina y en una interpretación ajustada al espíritu de nuestra Constitución, la Sala entiende como domicilio cualquier lugar cerrado en el que pueda transcurrir la vida privada, individual o familiar (Cfr. SS. entre otras, de 14 de enero, 3 de julio, y 5 y 24 de octubre de 1992, 18 de febrero, 23 de mayo y 15 de octubre de 1994, o lo que es lo mismo, que sirva de habitación o morada a quien en él vive, estimándose que **constituye domicilio o morada, cualquier lugar, cualquiera que sea su condición y característica, donde vive una persona o una familia, sea propiamente domicilio o simplemente residencia, estable o transitoria, incluidas las chabolas, tiendas de campaña, roulotes, etc. comprendida la habitación de un hotel u hospedería en la que se viva**²⁵.*

Nazio Batuen Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Batzordeak "nahitazko utzarazteak" definitzen ditu: pertsonak, familiak edota komunitateak hartzen dituzten etxe edota lurretatik behin betiko edo behin-behinean botatzea, lege edo beste mailako babes neurri egokiak eskaini gabe ezta horiek lortzeko bidea erraztu gabe²⁶. Nahitazko utzarazteek nazioarteko eskubidean aitortutako etxebizitza egokia lortzeko eskubidearen urraketa "prima facie" eratzen dute²⁷.

Azken finean, egonlekuetan bizi diren pertsonen eskubideak eta betebeharrak kontuan hartzen dituzten neurriak hartzea litzateke. Nahitazko utzaraztea ez da jatorriz Europar Batasunekoak diren ijitoen gizarteratzearen inguruan hartutako konpromisoak errespetatzen dituen neurria. Gizarte egoera horri aurre egiteko neurriak hartu behar dira, Europako herritar diren heinean euren eskubideak kontuan har daitezten, gizarte baten kide diren heinean betebeharrak bere gain har ditzaten eta esku hartzen duten administrazioen eskumenak gogoan izan daitezten.

- II.5.** Antzeman den hutsuneetako bat esku hartu duten agente, herri administrazio eta gizarte agenteen arteko lankidetzak eta koordinaziorako mekanismo falta izan da, ijitoekiko esku-hartzean ezinbestekotzat jotzen dena. Oinarrizkoa da ijitoengan eragina duten politiketan zeharkako ikuspuntua egon dadin. Ikuspuntu hori baztertzearen kontrako borrokarako neurrietan bermatzeaz gain, garapen ekonomikoan eragina duten neurrietan, giza-eskubideen defentsarako politiketan, hezkuntza, etxebizitza, osasuna, kultura... bezalako

²⁵ Letra beltza gurea da.

²⁶ CDESC, 7. Ohar Orokorra: Etxebizitza egokia lortzeko eskubidea: nahitazko utzarazteak, 1997, 3. paragrafoa.

²⁷ CDESC, 4. Ohar Orokorra: Etxebizitza egokia lortzeko eskubidea, 1991, 18. paragrafoa.



alorretara sartzean ere bermatu behar da²⁸. Ikuspuntu horrek kudeaketa publikoko esparru ezberdinetan neurriak hartzea eskatzen du herritarren beharrak betetze aldera. Dokumentu honetan jatorriz Europar Batasunekoak diren ijitoen egonlekuei arreta eskaintzeko beharrezkoak diren jarduerak soilik aipatu ditugu, nahiz eta gizarteratzea eraginkorra izan dadin bermatzeko burutuko diren gainontzeko neurriak aipatu ditugun.

Gogoratu behar dugu, utzarazten diren pertsonak ez direla Euskal Autonomia Erkidegotik "desagertzen", herri batetik bestera mugitzen dira eta, askotan, berriro ere gizarte zerbitzuen eta osasun zerbitzuen arreta jasotzen dute, besteak beste. Hasieratik erabateko arreta eskaintzean datza, bazterte prozesua areagotu ez dadin eta ahaleginak zabaldu edo errepikatu ez daitezten. Pertsona horiekiko hasierako arreta neurri eraginkorrago eta etengabeagoa da.

Euskal herri administrazioek, bai udalek bai foru aldundiek eta Eusko Jaurlaritzak, pertsona horien arretarekiko eskumena dute. Gauzak horrela, Gizarte Zerbitzuetako Euskal Sistemari, Herrizaingo Sailean eta Udaltzaingoan, Osasun eta Hezkuntza Sailean edo aniztasunaren kudeaketa bideratzen duten zerbitzu publikoetan eragina dauka.

Jarduera protokolo bat abian jartzeko ekimena Eusko Jaurlaritzari dagokio, zehazki Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailari, esku hartzen duten sail eta administrazioen parte-hartzea eta lankidetzak sustatu behar duenak. Zentzu horretan, erakunde arteko mahaia (edo antzeko organoa) abian jartzea beharrezkoa da, bere helburuen artean behar bezala koordinatutako jarduerak protokolo bat gauzatzea eta horren jarraipena izango duena. Herri administrazioetako sail edo eremuen esku-hartzea ezinbestekoa da protokoloa gauzatzeko eta beharrezkoak diren sektorekako neurriak hartzeko egonlekuetan esku-hartze aldera eta pertsona horien gizarteratzea hobetze aldera. Beste aukera –utzaraztea, lekualdatzea, bizitzeko leku egokiago bat bilatzea- ez da giza eskubideak eta gomendio honetan aipatu ditugun testuetan hartutakok konpromisoak errespetatzen dituen konponbidea.

²⁸ Ijitoak Europan: Europar Batasunean tresnak eta politikak gaineratzea ijitoak gizarteratzeko-Progress Report 2008-2010.



III. Ondorioa

Europar Batasunak jatorriz Batasunekoak diren ijitoen gizarteratzerako neurriak garatzea xedatu du. Era berean, hainbat baliabide bideratu ditu herri administrazioek eta gizarte agenteek agiri honetan aipatu ditugun onartutako tresnetan ezarritako helburuak bete ditzaten.

Urte hauetan zehar ijitoen egoerari buruzko ikerketak eta txostenak burutu dira, bai herri sedentario gisa bizi direnenak, gehienak baitira, bai ibiltariak direnenak; eta ijitoen gizarteratzean eragina duten jarduerak diseinatzean kontuan hartu beharreko printzipio komunak erabaki dira. Printzipio horien artean, eskualde eta toki mailako administrazioen, gizarte zibilaren eta ijitoen parte-hartzea azpimarratzen dugu²⁹.

Euskal Autonomia Erkidegoan bizi diren ijitoen egonlekuak egoteak herri administrazio guztien eskumena diren neurriak eskatzen ditu, eta ez soilik poliziaren eskumena direnak. Ez gara eremu publikoko erabilerari buruzko arazo bati buruz ari, ezta utzarazte bati buruz ere ez jabetza pribatuko ondasun higiezin bat okupatu izanagatik, eskubide eta betebeharrak dituzten eta zaurkortasun egoeran dauden pertsonen bizitzari buruz baizik.

Etxebizitza batean sartzeko titularraren baimena beharrezkoa da, infraetxe bat bada ere, hau da, txabola, furgoneta edo antzekoren bat bada ere, delitu gorria edo utzaraztea baimentzen duen ebazpen judiziala egon ezean. Pertsona baten etxebizitzan sartzeari legeak ezarritako kasuetan bakarrik gerta daiteke. Gainera, pertsonen jakinarazi behar zaie, alojamendurako beste aukerak eskaini eta errespetuz bideratu behar da, gogoan hartu beharreko beste hainbat konturen artean. Utziarazpena ezin da botere publikoek hartutako neurri bakarra izan, giza eskubideen errespetua baizik, eta bereziki, bizitza duina izateko eskubidea. Euskal herri administrazioek Europar Batasuneko, Europar Kontseiluko eta Nazio Batuetako kide izanagatik hartutako konpromisoak bete behar dituzte, hori dela-eta giza-eskubideak babesteko, proportzionaltasunez jokatzeko eta gizarteratzeko politikak sustatzeko hitzarmenak³⁰, itunak eta akordioak aplikatzekoak dira.

Aurreko guztia ikusita, erakunde honek honako gomendio hau egiten du:

²⁹ Ikusi 17. eta 19. oharra.

³⁰ Konstituzioaren 96.1. artikulua honela dio: *“Nazio arteko tratatuak balioz eginak, Espainian ofizialki argitaratuz gero, barne ordenamenduaren parte izango dira. Haien erabakiak bakar-bakarrik derogatu, aldatu edo baztertu ahal dira itun hauen arabera edo nazioarteko Zuzenbide arau orokorren arabera.”*

Era berean, Konstituzioaren 10.2. artikulua honela dio: *“Konstituzioak onartzen dituen oinarriko askatasun eta eskubideei dagozkien arauak honela adieraziko dira, hots, [Giza Eskubide Orokorren](#) adostasunez eta berauei dagozkien tratatu eta nazioarteko akordioen arabera hauek Espainiak berretsi baititu.”*



Gomendio orokorra

- Arlo honetan eskumena duten herri administrazioek eta, zehazki, Eusko Jaurlaritzak (Herrizaingo Sailak, Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailak, Justizia eta Herri Administrazio Sailak, Osasun Sailak eta Hezkuntza Sailak), foru aldundiek eta udalek (edo Eudelek euren ordezkari gisa) jatorriz Europar Batasunekoak diren herritar ijitoen egonlekuetan esku hartzeko jarduera protokolo bat garatzen parte har dezaten eta, bertan, giza eskubideetarako sarrera, euren betebeharren betetzea eta etxebizitzaren bortxaezintasunarekiko eskubidea berma daitezen.
- Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailak protokoloa burutzeko koordinatzen eta sustatzen aurrea hartu dezan, erakunde arteko mahai baten esparruan edo antzeko organo batean.
- Dagozkion euskal herri administrazioek ijitoak gizarteratzeko estrategia nazionalen Europako esparrua kontuan har dezaten eta, zehazki, Europako funtsak erabiltzeko aukera ijitoak gizarteratzeko prozesuaren hasierako fase honetan.

